

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

349/2021 Foru Agindua, abenduaren 29koa. Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean Lezako ospitalearen instalazioen eremua handitzeko proiektuaren interes publikoa adieraztea

Osakidetzak Guardiako Udalari udal lizentzia eskatu dio udalerriko lurzoru urbanizaezinean Lezako ospitalearen instalazioen eremua handitzeko. Proiektuan ageri diren obrak honako hauek dira: ospitaleko egungo instalazio etxolaren ondoan kokatuko den etxola bat, han horniketarako 53 metro kubikoko ur biltegi bat jartzeko, eta 55 metro kubikoko ur andel horizontal bat suteen aurkako babes sarerako.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Gaur egun, Lezako ospitalean dagoen ur biltegia hormigoi armatuz eginda dago, eta eraikinaren azken solairuan dago, berrikusi eta konpondu beharreko baldintza batzuetan. Biltegi horren egiturazko baldintzek eta kokapenak beste konponbide bat eskatzen dutenez, biltegi hori baliogabetzea eta, haren ordean, ospitaleko beheko aldean dagoen instalazio eraikinaren ondoan beste bat jartzea proposatzen da, bolumen baldintzak betetzeko eta ponpaketa, kloraizio, deskaltzifikazio eta abarretarako ekipoak hartzeko, horrela sarean matxurarik izanez gero ur hornidura bermatzeko.

Era berean, suteetatik babesteko aplikatzekoa den araudia betetzeko, hots, suteen aurka ura hornitzeari buruzko 2012ko UNE 23500 araua eta suteetatik babesteko instalazioen errege-lamendua onesten duen maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua, xede horretarako soilik erabiliko den biltegia behar da, suteetatik babesteko sistemek (ur harguneak, suteetako ur hargune hornituak, langarretagailuak) behar duten emaria gutxienez 60 minutuz ziurtatu ahal izateko. Ospitaleak baditu behar diren presio ekipoak eta, beraz, biltegia ponpetatik gertuko eremuan instalatzea aurreikusi da proiektuan.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasota dagoenez, Lezako Ospitalea Guardiako udalerriko 20 poligonoko 2 lurzatian dago, eta proiektuan jasota dago obra berriak 2-H azpilurzatian egitea, handitu nahi diren instalazioak kokatzen diren eraikinaren ondoan. Lurzatiak kalifikazio hauek ditu: "Lehengoratu Beharreko Baso Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina" (zuhaitzak dituen ezponda), eta "Nekazaritza Intereseko Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina". Bat etorri udalerriko indarreko arau subsidiarioetan ezarritakoarekin, lursail horretan baimenduta dago onura publikoko eta interes sozialeko eraikinak eta instalazioak jartzea, baldin eta beharrezkoa eta ezinbestekoa bada toki horretan jartzea.

2021eko azaroaren 4an, eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. Era berean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak egindako txostenean adierazten da proiektua ez dagoela ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien kasuen artean.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren

legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion Foru Aldundiak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Azaroaren 9ko 312/2021 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedientea, hain zuzen ere, 2021eko azaroaren 22ko ALHAOn (133. zenbakia) argitaratu zen, eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu hartarako eman zen epean.

Bigarrena. Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen “ ... helburua da Euskadiko Autonomi Elkarteko osasuna antolatzea; antolamendua, batetik, herritarren osasun-babesarekiko eskubidea Autonomi Elkartearen lurraldean efektibo egingo duten jarduketak oro har mugarriz egingo da, eta bestetik, Euskadiko osasun Sistema eratzen duten egiturak erregulatuz”.

Horrela, Lege horrek 3. artikuluan ezartzen ditu “Euskal Administrazio Sanitarioari dagozkion jarduketak. Herritarren osasun-babesarekiko eskubidea aitortzeak euskal aginte publikoei zenbait betebeharrak ezarri dizkie; betebeharrak horiek direla-eta, Euskal Administrazio Sanitarioari dagokio osasun publikoaren tutela orokorra garantizatzea, (...). Halaber, haren zeregina izango da baliabide-dispositibo egokia garantizatzea, hots, izaera publiko zuzentzeko prestazioak emateko baliabide-dispositibo egokia garantizatzea, batez ere titularitate publikoko baliabideen dotazio, mantenimendu eta antolamendu hobekuntzaren bidez”.

Bestalde, 29. artikulua berariaz aipatzen ditu osasun egiturak interes publikoko zerbitzu gisa, eta adierazten du, titulartasuna edozein dela ere, osasun publikoaren babes orokorra bermatzeko emandako antolamendu arauen mende egongo direla.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak (irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onetsia), 42. artikuluan, landa lurzoru baimendutako erabilerean artean ezartzen ditu komunitate ekipamenduetarako instalazioak, publikoak edo pribatuak, beren izaera eta ezaugarriengatik landa ingurunean kokatu behar diren zerbitzuak ematera bideratuak, alde aurretik onura publikokotzat edo gizarte interesekotzat adieraziak, eta berariaz adierazten du zerbitzu publikoen ekipamendua, “beren ezaugarri funtzionalengatik, bateraezinak izan baitaitezke batez ere beste erabilera batzuetarako diren zonetan ezartzeko”.

Aztertutako kasuan, interes publikoa proiektuaren izaerak ematen du, eta justifikatuta dago instalazioa kokaleku zehatz horretan kokatu beharra, azpiegituraren berezko ezaugarriak kontuan hartuta.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, hain zuzen, 20 poligonoko 2-H azpilurzatian, Lezako ospitalearen instalazioen eremua handitzeko proiektuaren interes publikoa adieraztea, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bigarrena. Ebazpen honen jakinarazpenarekin batera, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak egindako txostenaren kopia bidaltzea.

Hirugarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Laugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jarri ahalko zaio, egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 29a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO